

ADIERAZPEN ASKATASUNAREN ALDEKO MOZIOA

Joan den maiatzaren 18an, Udaltzaingoa ordu erdi baino gehiagoz atxiki zituen Ermuko bi bizilagun kartelak ipintzen ari ziren bitartean.

Aurrerago, Ermuko Udalak Segurtasun Sailaren aurrean salaketa jartzea erabaki zuen, **MOZAL LEGEA** aplika diezaieten, kartelak itsasten zituzten bitartean identifikatzeari uko egiteagatik.

Uste dugu oso larria dela udal batek Mozal Legea bere auzokideen aurka erabiltzea, are gehiago alderdi guztiek lege hau salatu dutenean, PPK eta VOXek izan ezik.

Gure ustez, oso larria da udala bere bizilagunen adierazpen-askatasuna erreprimitzen aritzea, herriko kolektibo eta mugimendu sozialek jartzen dituzten kartelak eta pankartak sistematikoki erauziz, batez ere errebindikaziokoak badira, oinarritzko eskubide bat mugatzeko helburu bakarrarekin sortutako udal-ordenantza batean oinarrituta (Udalak berak nahi ez duenean betetzen ez duena).

Uste dugu oso larria dela Udaltzaingoa herritarren askatasunak zapaltzeko erabiltzea.

Eta uste dugu, halaber, bizikidetzak askatasunekiko eta oinarritzko eskubideekiko errespetuaren eskutik datorrela.

Horregatik, behean sinatzen dugun Ermuko kolektibo eta erakundeok honako hau eskatzen diogu Udalari:

- 1. Salatutako herritarrek jarritako helegiteari jarraiki, bi bizilagun hauen aurkako salaketa kentzea**
- 2. Udaltzaingoa ez erabiltzea herritarren askatasunak zapaltzeko**
- 3. Udalak herritarren adierazpen-askatasuna errespetatzea,** eta herriko elkarte eta erakundeok jartzen ditugun kartelak eta pankartak modu sistematikoan erauzteari uztea.

Eskubide horren erabilera urratzen duten garbiketako udal ordenantzaren artikulak aldatzeko eskatzen dugu, eta herriko elkarte guztiekin elkarriketaren bidez, gure kaleen estetika babesteko alternatibak bilatzeko eskatzen dugu, aldi berean gure elkartearen dinamikak eta bertako biztanleen adierazpen askatasuna hedatzeko gune irekia izan daitezen ahalbidetuz.

Ermua herri bizi, dinamikoa, parte-hartzailea, anitza, inklusiboa, solidarioa eta askea izatea nahi dugulako.

Sinatzaileak:

ELA, LAB, ESK, Ermuko Emakumeen Asanblada, NUSHU, , ZIPRIZTINTZEN, Ermuko Gazte Asanblada

Ermuko Komite Internazionalistak, SARE, ERNAI